



MUGIKORTASUN  
JASANGARRIAREN SAILA  
Azpiegituren eta Mugikortasun  
Jasangarriaren Sailburuordetza  
Garraio Azpiegituren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE  
MOVILIDAD SOSTENIBLE  
Viceconsejería de Infraestructuras y Movilidad  
Sostenible  
Dirección de Infraestructuras del Transporte

**EBAZPENA, 2025eko urtarrilaren 15ekoa, Garraio Azpiegituren Zuzendariarena, zeinaren bidez ontzat ematen da “PASAIAKO GELTOKI BERRIRAKO SARBIDE MEKANIZATUEN PROIEKTUA”.**

“Altza-Galtzaraborda tartearen eraikuntza-proiektuaren” xedea Donostialdeko metroaren tarte hori, trazadura berrikoa eta trenbide bikoitzekoa, Altzako geltoki berria eta Galtzarabordako egungo geltokia lotuko dituen, eraikitzeko obra zibila zehaztea da, etorkizunean Erreterian lurperatuko den trenbidearekin koordinatuta.

Tarte hori Donostia-San Sebastián, Pasaia eta Erreteriarako udal-mugarteetan zehar hedatzen da, eta gaur egun egikaritzen ari den Herrera-Altza mehatze-tunelean doan tartearekin lotzen da, meatze-tunelean igarota Eskalantegi kaleraino (Donostia eta Pasaia udalerrien arteko mugan) helduz. Pasaia udalerria mendebaldetik ekialdera zeharkatzen da, KPen aurrerapenaren norabidean, ia osorik tunel faltsu batean, eta berriro ere meatze-tunel bihurtuz Donostiako udalerriaren mugan, Pasaia saihesbidearen eta Donostia-Irun trenbidearen egungo trazaduraren azpitik gurutzatu aurretik. Meatze-tunelaren bigarren zati hori Erreteriarako udal-mugarteraino iristen da, eta, bertan, Parke kalearen parean irteten da kanpoaldera, egungo trenbidearen trazadura igarotzen den ibarbidean, Galtzarabordako geltokiaren hasieran berarekin bat egiteraino.

Hortik abiatuta, hainbat irtenbide garatu dira, bai linearen trazadurarako, bai tartean proiektatzen diren geltoki bakoitzerako. Geltokiok eboluzionatu egin dute, ETSren zuzendaritzapean, hemen aurkezten den

**RESOLUCIÓN del 15 de enero de 2025 de la Directora de Infraestructuras del Transporte, por la que se aprueba el “PROYECTO DE ACCESOS MECANIZADOS DE LA NUEVA ESTACIÓN DE PASAIA”.**

El objeto del “Proyecto Constructivo del Tramo Altza-Galtzaraborda”, es definir a nivel de construcción la obra civil que es necesario llevar a cabo para la implantación del mencionado tramo del Metro de Donostialdea, de nuevo trazado y con doble vía, que conecta la nueva estación de Altza, en ejecución, con la existente estación de Galtzaraborda, asegurando la coordinación con el futuro soterramiento de Erretería.

Este tramo se desarrolla a lo largo de los términos municipales de Donostia-San Sebastián, Pasaia y Erretería, conectando con el tramo actualmente en ejecución Herrera – Altza, en túnel en mina y discurriendo en túnel en mina hasta la calle Eskalantegi (límite entre los municipios de Donostia-San Sebastián y Pasaia). El término municipal de Pasaia es atravesado de oeste a este, en el sentido de avance de los PKs, prácticamente en su totalidad en falso túnel, pasando nuevamente a túnel en mina en el límite con el término municipal de Donostia-San Sebastián, antes de cruzar por debajo de la Variante de Pasaia y del trazado actual del FFCC Donostia-Irún. Este segundo tramo de túnel en mina llega hasta el término municipal de Erretería, en el que sale a la altura de la calle Parke, ya en la vaguada por la que discurre el trazado actual del FFCC, hasta empatar con el mismo justo en el inicio de la estación de Galtzaraborda.

Se desarrollan a partir de ahí, diferentes soluciones, tanto para el trazado de la línea, como para cada una de las estaciones que se proyectan en el tramo, que han evolucionado, bajo la Dirección de ETS, hasta llegar al

hartutako azken trazadurara iritsi arte. Trazadura hori optimotzat jotzen da eskatutako funtzionaltasunaren eta zerbitzatutako populazioaren ikuspegitik.

trazado finalmente adoptado que ahora se presenta, que se considera óptimo desde el punto de vista de la funcionalidad requerida y la población servida.

Jarraian, obra zatitu daitekeen lau tarteetako bakoitzerako proiektatutako soluzioa deskribatzen da:

A continuación, se describe la solución proyectada para cada uno de los cuatro tramos en que se puede dividir la obra:

- Altza-Pasaia tartea.
- Pasaiaiko geltokia.
- Pasaia-Galtzaraborda tartea.
- Galtzarabordako geltokia.

- Tramo Altza-Pasaia.
- Estación de Pasaia.
- Tramo Pasaia-Galtzaraborda.
- Estación de Galtzaraborda.

Proiektu honen xedea, Donostialdeko metroaren Pasaiaiko geltoki berrira sartzeko behar diren instalazio elektromekanikoak zehaztea da.

Es objeto del presente proyecto la definición de las instalaciones electromecánicas necesarias para el acceso a la nueva estación de Pasaia del Metro Donostialdea.

“Pasaiaiko geltoki berrirako sarbide mekanizatuak” proiektuan ezarritako ekipo elektromekanikoak, Metropoli-Trenbideak erabiltzaileen eskura jartzen dituen garraio bideak dira, geltokietara kanpoko aldetik sartzea errazteko. Honako hauexek:

Los equipos electromecánicos que ocupan el proyecto de “Accesos Mecanizados para la nueva estación de Pasaia” constituyen el medio de transporte que el Ferrocarril Metropolitano pone a disposición de los usuarios para facilitar su acceso a las estaciones desde el exterior de las mismas y son los siguientes:

- Igogailuak.
- Eskailera mekanizatuak.

- Ascensores.
- Escaleras mecanizadas.

Ondoren, Pasaiaiko geltoki berrian jarriko diren igogailuak zerrendatzen dira:

A continuación, se relacionan los Ascensores que se prevén instalar en la nueva estación de Pasaia:

- Bide Publikoa-Atondoa (AVV) komunikazioko igogailuak: Bide Publikotik banaketa-atondora sartzeko igogailu bat instalatzea aurreikusten da.
- Atondotik nasarako (AVA) komunikaziorako igogailuak: banaketa-atondotik nasetara sartzeko bi igogailu instalatzea aurreikusten da.

- Ascensores comunicación Vía Pública-Vestíbulo (AVV): se prevé la instalación de un ascensor para el acceso desde la Vía Pública al vestíbulo de distribución.
- Ascensores comunicación Vestíbulo a Andén (AVA): se prevé la instalación de 2 ascensores para el acceso desde el vestíbulo de distribución a los andenes.

Ondoren, Pasaiaiko geltoki berrian jarri nahi diren eskailera mekanizatuak zerrendatzen dira:

- 7,3 metroko altuera duten 2 eskailera mekaniko, bide publikotik atondoraino.

Proiektua egikaritzeko aurrekontua MILIOI BAT HIRUREHUN ETA LAU MILA EHUN ETA LAUROGEI EURO ETA BERROGEITA LAU ZENTIMOKOA (1.304.180,44 €) da. Horrek esan nahi du lizitaziorako oinarritzko aurrekontua MILIOI BAT ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAZAZPI MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA BEDERATZI EURO ETA BERROGEITA BI ZENTIMOKOA (1.877.889,42 €) dela, BEZ barne; eta Administrazioak horren berri izateko aurrekontua: MILIOI BAT BOSTEHUN ETA BERROGEITA HAMAIIKA MILA BEDERATZIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMALAU EURO ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU ZENTIMOKOA (1.551.974,73 €) da, BEZik gabe.

Obrak egiteko BEDERATZI (9) hilabeteko epea aurreikusten da.

Euskal Trenbide Sareko (ETS) Zerbitzu Teknikoek egiaztatu dute proiektu honek bere xedeari erantzuten diola eta Sektore Publikoko Kontratuen Legeak eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrek eskatutako baldintzak betetzen dituela, kontrata bidez egikaritzeko behar diren alderdi nahikoak jasotzen baititu; halaber maila formalean berrikusi du proiektua eta berresten du bete egiten duela Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritakoa, maila formalean, beharrezko dokumentuak eta indarrean dagoen araudia sartzeari dagokionez, edukiari, sinadurei eta alderdi formalei, beharrezko kalkulu-oinarri eta -hipotesiei eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 233.1 artikuluan zerrendatutako edukiari dagokienez.

A continuación, se relacionan las escaleras mecanizadas que se contemplan instalar en la nueva estación de Pasaia:

- 2 escaleras mecánicas de 7,3 m de altura desde la vía pública hasta el vestíbulo.

El Proyecto tiene un presupuesto de ejecución material que asciende UN MILLÓN TRESCIENTOS CUATRO MIL CIENTO OCHENTA EUROS Y CUARENTA Y CUATRO CÉNTIMOS (1.304.180,44 €), que significa un presupuesto base de licitación con IVA de UN MILLÓN OCHOCIENTOS SETENTA Y SIETE MIL OCHOCIENTOS OCHENTA Y NUEVE EUROS Y CUARENTA Y DOS CÉNTIMOS (1.877.889,42 €), y un presupuesto para conocimiento de la Administración sin IVA de UN MILLÓN QUINIENTOS CINCUENTA Y UN MIL NOVECIENTOS SETENTA Y CUATRO EUROS Y SETENTA Y TRES CÉNTIMOS (1.551.974,73 €).

El plazo de ejecución estimado para las obras es de NUEVE (9) meses.

Los Servicios Técnicos de Euskal Trenbide Sarea (ETS) han verificado que este proyecto responde a su objeto y cumple los requisitos exigidos por la Ley de Contratos del Sector Público y por el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, por cuanto recoge los aspectos suficientes y necesarios para su ejecución por contrata; así mismo han revisado el proyecto a nivel formal y ratifica que cumple con lo estipulado en la Ley de Contratos del Sector Público y el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas en cuanto a la inclusión de los documentos necesarios y la normativa vigente en relación a su contenido, las firmas y aspectos formales, las bases e hipótesis de cálculo necesarias y el contenido relacionado en el artículo 233.1 de la Ley de Contratos del Sector Público.

Organo honek eskumena du Bilboko Metropoli-trenbide sareko obren proiektuak onartzeko, hala xedatzen baitu 382/2024 DEKRETUAK, azaroaren 19koa, Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenaren 11.2.b) artikuluan.

Este órgano es competente para la aprobación de los proyectos de la red del Ferrocarril Metropolitano de Bilbao, según lo dispuesto en el artículo 11.2.b) del DECRETO 382/2024, de 19 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Movilidad Sostenible.

Aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta oro har aplikatu beharrekoak ikusita, hau

Vistas las disposiciones citadas, y demás concordantes y de general aplicación,

### EBATZI DUT:

### RESUELVO:

**LEHENA:** “PASAIAKO GELTOKI BERRIRAKO SARBIDE MEKANIZATUEN PROIEKTUA” onartzea. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua, BEZ barne, MILIOI BAT ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAZAZPI MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA BEDERATZI EURO ETA BERROGEITA BI ZENTIMOKOA (1.877.889,42 €) da, eta obrak egiteko epea BEDERATZI (9) hilabetekoa izango dela aurreikusi da.

**PRIMERO:** Aprobar el “PROYECTO DE ACCESOS MECANIZADOS DE LA NUEVA ESTACIÓN DE PASAIA” con un presupuesto base de licitación, IVA incluido, UN MILLÓN OCHOCIENTOS SETENTA Y SIETE MIL OCHOCIENTOS OCHENTA Y NUEVE EUROS Y CUARENTA Y DOS CÉNTIMOS (1.877.889,42 €), y con un plazo de ejecución estimado para las obras de NUEVE (9) meses.

**BIGARRENA:** Eraikuntza proiektu hau onartzeak berekin dakar obrak onura publikokoak edo interes sozialekoak direla deklaratzeko, okupatzeko beharra adieraztea eta dagokion Eraikuntza proiektuaren beraren eranskinean zerrendatuta dauden erasandako ondasunak eta eskubideak lehenbailehen okupatu behar direla adieraztea.

**SEGUNDO:** La aprobación de este proyecto Constructivo conlleva la declaración de utilidad pública o interés social de las obras, la necesidad de ocupación y la declaración de urgencia de la ocupación de los bienes y derechos afectados relacionados en el anexo correspondiente del propio Proyecto Constructivo.

Ebazpen hau ez da behin betikoa administrazio-bidean, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtoa aurkez diezaioke Azipiegituren eta Mugikortasun Jasangarriaren sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Idazki hori organo honi edo Azipiegituren eta Mugikortasun Jasangarriaren sailburuordeari bidali beharko zaio.

Esta resolución no es definitiva en vía administrativa y contra ella los interesados pueden interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Infraestructuras y Movilidad Sostenible, dentro del plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de la notificación o publicación, dirigiendo el escrito de interposición bien a este órgano, bien al Viceconsejero de Infraestructuras y Movilidad Sostenible.

Administrazio publikoek administrazioarekiko auzi-errekurtoa jarri ahal izango dute, bi (2) hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko

Las Administraciones Públicas podrán interponer recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos (2) meses, ante la sala de lo contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País



auzien aretoan, hargatik aldeaz aurretik errekerimendua egitea eragotzi gabe, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailearen 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan zehaztutako moduan eta epean.

Jendaurrean jartzen da, guztiek horren berri izan dezaten.

Gasteizen, 2025eko urtarrilaren 15ean

Vasco, sin perjuicio de poder efectuar requerimiento previo en la forma y plazo determinados en el artículo 44 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la jurisdicción contencioso-administrativa.

Lo que se hace público para general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de enero de 2025

DOLORES DE JUAN DE MIGUEL Anderea  
**GARRAIO AZPIEGITUREN ZUZENDARIA**  
**DIRECTORA DE INFRAESTRUCTURAS DEL TRANSPORTE**